



2009KO ABENDUAREN 17KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko abenduaren hamazazpian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro eta Iñaki Saldaña Herrero.

Ángel Hernández Marzal eta Javier Moreno González de Lara zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Juan Manuel Serna Portugal eta Ricardo Crespo Rubio zinegotziak bertaratzen direneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman eta esaten du eguneko gai zerrendatik kanpo eta presazko izaeraz "Aminatou Haidarren aldeko adierazpena" mozioa tratatzea planteatzen dela. Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin proposamena onartu egiten du.

Une honetan bertaratu dira Juan Manuel Serna Portugal eta Ricardo Crespo Rubio zinegotziak

I.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

II.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 3 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedienteak irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedienteak aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 3 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	431.769,92 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		431.769,92 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
I	Zuzeneko zergak	14.470,98 €
VII	Kapital transferentziak	417.298,94 €
GUZTIRA		431.769,92 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

III.- 2010EKO AURREKONTUA.-

Jarraian 2010 urterako aurrekontua aurkeztzen osoko bilkurara bere onarpenerako. Aurrekontu honek udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearena hartzen ditu bere barne.

Alkateak esaten du urte honetarako egin zen bezala datorren urterako ere goi karguen ordainsari eta kalteordainak igoerarik gabe bere horretan uztea planteatzen dela. Esaten du baita ere aurrekontu honetan inbertsiorik ez dela aurrikusi eta Enplegua eta Tokiko Jasangarritasunerako Estatu Fondoaren bidezko inbertsio planaren inguruko eztabaia datozen bi hilabeteetan egingo dela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurrekontuaren osaketarekin ados daudela eta une honetan inbertsioak alde batera uztearekin. Esaten du baita ere, badirela aurre-



kontu honetan hainbat partida beraiek ados ez daudenak eta horren konstantzia uzteko eta aurrekontua onartu izateko beraieen aldeko botua beharrezkoa ez dela kontutan izan-da abstenitu egingo direla.

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak baimena eman ondoren Joseba Hernandezek esaten du inbertsioen inguruko eztabaida hori lehen bai lehen ematea nahiko luketela eta beraiek planteamenduko badaukatela kiroldegiaren 2. fasea izango litzekena. Esaten du baita ere beraiek aurrekontu honen aurka daudela eta goi karguen soldatak ez igotzeare-nari buruz esaten du lehen ere nahiko goian daudela iruditzen zaiela.

Saldaña zinegotziak (Alternatiba) esaten du aurrekontuaren alde bozkatuko duela eta esan nahiko lukeela baita ere aurrekontu honek zorpetzea beharko balu gizarte politi-ketarako zorpetzea izan dadila, gizarte politikan gehiago lan egin dezagula beste politike-tan baino, denak beharrezkoak baldin badira ere.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko bederatzi botu (EAJ, EB-B), aurkako boturik gabe eta bi abstentzioz (PSE-EE), honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehena.- 2010 urterako udal aurrekontua hasierako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua har-tzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapituluko laburpenak honako hauek dira:

2010EKO UDAL BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.480.200 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	100.000 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.141.100 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.579.000 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	11.500 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIK	3.540 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
SARRERAK GUZTIRA			5.316.340 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.237.950 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZ. GAST.	2.903.432 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	50.000 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	430.359 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	123.000 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	570.599 €
GASTUAK GUZTIRA			5.316.340 €



2010EKO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

SARRERAK:

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	5.482.995 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	604.847 €
SARRERAK GUZTIRA			<u>6.087.842 €</u>

GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	215.103 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	163.000 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	2.709.739 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	3.000.000 €
GASTUAK GUZTIRA			<u>6.087.842 €</u>

2010EKO UDALAREN AURREKONTU KONTOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.480.200 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	100.000 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.141.100 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.579.000 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	11.500 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK	5.482.995 €
VII	KAPITULUA	ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ-	
VIII	KAPITULUA	TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	
IX	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	3.540 €
		FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
		FINANTZA PASIBOAK	604.847 €
SARRERAK GUZTIRA			<u>11.404.182 €</u>

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.237.950 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.118.535 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	213.000 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	430.359 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	2.709.739 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	123.000 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	3.570.599 €
GASTUAK GUZTIRA			<u>11.404.182 €</u>



Bigarrenen. Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena. Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

IV.- PLANTILLA ORGANIKOA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako 2010erako Udal Langileen Plantila Organikoa, bere espedientean aurkitzen dena.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2010erako Lazkaoko Udalaren plantila organikoa, bere espedientean dagoena, onartu egiten du.

V.- LANPOSTUEN ZERRENDIA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako 2010erako Udal Langileen Lanpostuen Zerrendia, bere espedientean aurkitzen dena.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2010erako Lazkaoko Udalaren Lanpostuen Zerrendia, bere espedientean dagoena, onartu egiten du.

VI.- AA.SS.ETAKO 2 H.A.KO 1 B.U.AREN UDALAREN JABETZAKO %10AREN BESTERENTZEA.-

2005eko ekainaren 7an, Lazkaoko Udalak, Alkatetzaren Ebazpen bidez, Arau Subsidiarioetako 2 Hirigintza Areako 1 Burutze Unitatearen Birpartzelazio Proiektuari behin betiko onarpena eman zion.

Aipatu dokumentuan, beste aurriksen batzuen artean, konfiguratzeko den lursail eraikigarri bakarrean urbanizazio zamatetik at dagoen jabetza indibisoko %10eko partaidetza Lazkaoko Udalari esleitzea jasotzen zen. Aipatu lursail eraikigarri hori Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatu zen 6389 zbk.aren, 2085 Tomoan, Lazkaoko 100 Liburuan, 182 Folioan.

Jabetza Erregistrotik jasotako informazioaren arabera lursail horren gaur egungo jabeak, indibisio erregimenean, honako hauek dira:

- Ausartondo, S.L., hamarretik bederatziko partaidetzarekin.
- Lazkaoko Udala, hamarretik bateko partaidetzarekin.

Ausartondo, S.L.k udal honi, aipatu lursail eraikigarrian udalak daukan hamarretik bateko partaidetza hori erosteko duen interesa azaldu dio. Esan behar da aipatu merkataritza elkarte horrek lursailean egoitzara zuzendutako eraikuntza sustatu duela, eta une honetan lanak ia amaituta daudela eta obra berri aitorpenaren eskritura formalizatzeko zai.



Udal arkitekto aholkulariak txostena egin du lursailaren balioaren inguruan eta txosten horren arabera, udalaren jabetzakoa den partaidetzaren balioa laurogeita hamabost mila berrehun eta laurogeita bederatzi euro eta laurogeita hemezortzi zentimotakoa (95.289,98 €) da.

Gai honen inguruan egin den txosten juridikoan ondorioztatzen denez, kasu honetan indibisoaren beste jabearen aldeko salmenta edo besterentze zuzena egitea egokia da.

Jendartetik Joseba Hernandezek hitza eskatzen du eta alkateak hitzegiteko baime-na eman ondoren esaten du gai honen inguruko beraien eskaria besterentze honekin jasotzen den dirua beste lur batzuk erosteko izatea dela.

Guzti hau honela, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko bo-tuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Lazkaoko Udalak AA.SS.eta 2 H.A.ko 1 B.U.ko Birpartzelazio Proiektuaren ondoriozko lursail eraikigarri bakarrean bere jabetzakoa duen %10eko partaidetza indibisoa besteren-tzea, LAUROGEITA HAMABOST MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMOtako (95.289,98 €) prezioan AUSARTONDO, S.L.ri.

2.- Alkatea ahalamentzea udalaren izenean besterentze hau gautzatzeko beharrezko izapi-deak egin eta dokumentuak izenpetzeko.

VII.- AMINATOU HAIDARREN ALDEKO ADIERAZPENA MOZIOA

Alternatiba Taldeak aurkeztu eta udal gobernu taldearen izenean osoko bilkurara aurkeztzen da Aminatou Haidarren aldeko ondorengo adierazpen mozioa:

"AMINATOU HAIDARREN ALDEKO ADIERAZPENA

Mozio hau izenpetzen duten alderdi politikoek, indarrean dagoen legediaren arabera, Ami-natou Haidar Mendebaldeko Saharara itzultzearen inguruko PROPOSAMEN hau aurkeztzen dute, Erakundearen Osoko Bilkuran eztabaidatu eta hala badagokio, onartua izan dadin.

Pasa den azaroaren 13an Marokoko Gobernuak Aminatou Haidar, Mendebaldeko Saharako Giza Eskubideen defendatzaile ezaguna, egotzi zuen. Ekintza hau giza eskubideen eta es-kubide demokratikoen zaurtzapen nabaria da, Aminatouk Haidarrek Sahararen marokota-suna ez onartzea eta Marokorentzat arriskutsua denaren argudio faltsuaren arabera lurral-dean sarrera ukatzen baitzaio, nahiz eta dokumentuak egunean izan. Pasaportea kentzea eta Espainiako Gobernuaren konplizitatearekin Lanzaroteko irlara egozte, Aminatou Hai-darrek behin eta berriz adierazi duen borondatearen aurka doa; hau da, bere bizitokia den Mendebaldeko Saharako lurraldean bere familiarekin, bere seme-alabekin, bizitzearen aur-ka.

Marokoko Gobernuaren ekintza hau Mendebaldeko Saharan Giza Eskubideen aurka ema-ten ari den errepresioaren testuinguruan kokatzen da. Honen adibide dira Mohamed VI erregearen arestiko hitzaldia, Giza Eskubideen defentsan ari diren zazpi sahararren atxilo-keta Casablancon eta hauei aplikatutako jurisdikzio militarra, nazioarteko behatzaileei




Mendebaldeko Saharan egoteko debekua, Saharako aktibistei libreki mugitzea ekiditeko pasaporte eta dokumentuak masiboki kentzea, sahararren artean beldurra eta haien aurkako torturak ugaritu izana, NBERen Segurtasun Kontseiluaren erresoluzioek berretsia duten autodeterminazio erreferenduma ukatzea, e.a. Guzti honek Marokoko Gobernu nazioarteko legediaren aurka dagoela adierazten du, eta lehertze dagoen egoera eragiten du legez kontra okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetan.

Egoera hau salatzeko eta bere itzulera eskatzeko, Aminatou Haidarrek bere bizia arrisku larrian jarriz gose greba bat hasi zuen pasa den azaroaren 14an Lanzaroteke Aireportuan. Kontuan hartu behar da Marokoko karteletan aurrez jasotako hainbat torturek bere osasunari kalteak eragin zizkiola.

Guzti hau dela eta, egoeraren larritasunaren aurrean, Bilkura honek honako

ERABAKIAK hartu ditu:

1. Aminatou Haidarrek adierazitako bidezko aldarrikapenen aurrean sostengua eta elkartasuna adieraztea. Mendebaldeko Saharara itzuli eta bere familiarekin bildu dadin, nazioarteko legedia urratzen edota Aminatou Haidarren borondatearen aurkako betekizunik inposatu gabe, Marokoko Gobernuak berehalakoan sarrera baimendu diezaion beharrezko diren akzioez baliatzea. Guzti hori, Nazio Batuek onartutako Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Hitzarmena betetze aldera.
2. Era berean, Lanzaroten gose greban "pasaporterik ezta Estatu Espainolean geratzeko asmorik ez duen" Aminatou Haidar Giza eskubideen defendatzailearen egungo egoerari irtenbide bat bilatzeko gestio posible guztiak egin ditzan premiazko eskea egitea Espainiako Gobernuari.
3. Marokoko Gobernu Mendebaldeko Saharan eragiten ari den Giza Eskubideen bortxaketa areagotzen ari dela eta gure ardura azaltzea. Errepresio egoera hau amaitzea, saharar preso politikoak aske uztea, eta marokoar agintariek kendutako pasaporte eta dokumentu guztiak berehala itzultzea exijitzen dugu.
4. Mendebaldeko Saharan NBEk adostutako Autodeterminazio Erreferendumaren ospakizuna exijitzea; hau baita konflikto luze hau lurraldearentzat modu iraunkor, baketsu eta egonkorrean konpontzeko era bakarra.
5. Akordio hauek ondoko erakundeetara bidaltzea:
 - a. Espainiako Errege-etxera
 - b. Espainiako Gobernu buruari
 - c. Kanpo Harremanetarako espainiar Ministroari
 - d. NBERen Madrileko bulegora
 - e. Europar Batasunaren Presidentziari
 - f. Marokok Espainian duen Enbaxadara"



Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du Aminatou Haidarren egoera benetan tamalgarrria dela eta lehen bai lehen ondo konpon dadin espero dutela. Beste alde batetik, esaten du, gustatuko litzaiekela mozioa zati batean aldatzeko aukera egotea, eta zehatz mehatz "Espainiako gobernuaren konplizitatearekin" esaten den zatian, eta hau, uste dutelako, Espainiako gobernuak ahal den guztia egiten ari dela eta egin duelako arazoari irtenbidea emateko, eta esaten du baita ere zati hau kentzen ez bada ez dutela babestuko.

Saldaña zinegotziak (Alternatiba) esaten du mozioan ezer aldatzearen aurka dagoela.

Serna zinegotziak esaten du zati hori kentzen ez bada beraiek abstenitu egingo direla, eta kontsentsuaren izenean gehiengoa duen alderdiari ahalegin bat eskatzen diola.

Alkateak esaten du mozioa aurkeztu den bezala aurkeztu dela eta bere horretan mantenduko dutela.

Mozioa bozketan jarri eta osoko bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ, Alternatiba), aurkako boturik gabe eta 3 abstentzioz (PSE-EE, Lurdes Garmendia) mozioa onartzea erabakitzen du.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak horretarako baimena eman ondoren herritar batek esaten du mozioarekin ados dagoela baina gogorarazi nahi duela beste batzuetan ere egoera zailak eta adibidez De Juana Chaos gose greban egon zenean udal honek ez zuela moziorik onartu eta eskubideak defendatu behar direla ez bakarrik saharakoenak baizik eta preso politiko guztienak.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

